

• ASTERO GAIA •

Ipar Korea

Estatu juxteista nazioartean

Hego Korearekin muga blokeatu berri duen Koreako Herri-Errepublika Demokratikoak 60 urte bete zituen pasa den irailaren 9an. Kim Il Sung estatu-fundatzailearen izena daraman plazan, milioi bat lagun bildu ziren ospakizunetan. 170 metro garaierako juxte dorrearenugarren zaintzapean milaka soldadu eta tankek desfile zuten. Egun seinalatu horretan ordea, ez zen Kim Jong Il lider nagusia inondik ere ageri.

IKER BLAS

Ezkerrean, Kim Jong Il liderra. Ondoan, Kim Il Sung, aita eta estatu fundatzailea.



➊ Ipar Korea

KIM JONG ILEK ospakizunetan parte hartu ez izanarekin, nazioartearen interesa bereganatu du Ipar Koreak, beste behin. Inteligentzia zerbitzu estatubatuarrek eta mendealdeko komunikabideek, Gerra Hotza garaietako propaganda aparatuen antzera, arrapaladan, buruzagi korearraren ustezko osasun arazoaren inguruko zurrumurrua zabaldu dute munduan.

Beste ildo batean, irailaren 25ean Pyongyangen (hiriburuan) desnuklearizazio prozesua jarraitzen ari ziren Atomo Energiaren Nazioarteko Agentziako begiraleak herrialdetik bota zituen erregimen iparko-erarrak, mende erdia baino gehiago izozturik daraman gatazka nahaspilatuz. Hala ere, urriaren 11n gatazka berbideratzeko Ipar Korea “herrialde terroristen” zerrendatik kendu zuen Washingtonek eta berehala Pyongyangek begiraleak berriz onartu zituen.

Auzi nuklearra eta korearra halako aurrerapauso eta atzerapausoz betea dago. Hori dela eta, konplexua izan daiteke gatazkaren nondik norakoak ulertzea. Nazioarteko politikan gaur egun erronka diplomatikorik handiena da erregimen iparkoerarra.

Historian errotutako gatazka

Ipar Korea Asia ipar-ekialdeko eremu geopolitiko zatitu eta aldakorrean kokatzen da. Espazio geografiko horretan, atzerriko super potentzia bat (Amerikako Estatu Batuak), garapen biziko potentzia bat

Irailean, 170 metro garaierako jutxe dorrearenugarren zaintzapean milaka soldaduk desfilaratu zuten, Koreako Herri-Errepublikako Demokraziaren 60. urteurrenean.



(Txina), iraganeko interesak berrezarri nahi dituen potentzia zahar bat (Errusia), asmo politiko eta militar independenteak erakusten hasi den potentzia ekonomiko bat (Japonia), bitan banatuta baina integrazio ahalmen handiko nazio bat (Korea), eta etorkizun ezezaguneko komunitate gataz-

Komunismoa, nazionalismoa eta jutxe ideia

VLADIMIR LENINEK Yi Tong Whi Koreako Alderdi Komunistaren idazkari nagusiari, korearrak komunistak beharrean nazionalistak zirela adierazi zion behin baino gehiagotan. Lenin zuzen zebilen. Hedabideetatik Ipar Korea munduko azken erregimen komunista dela maiz errepikatzen duten arren, inor gutxi ausartzen da sistema politiko honen berezitasun ideologikoa aztertzea.

Ipar Koreak 1972an onartutako konstituzioak dio sistema politikoa jutxe ideien printzipioetan oinarritzen dela. Baina zer ezkutatzen du atzean jutxe ideiak? Etimologikoki jutxe hitzaren jatorria karaktere txinatarretan dago. Horien arabera, *Ju*-k jauna, nagusia eta burujabetasuna esan nahi du, eta *txe*-k berriz, gorputza, substantzia. XIX. mendean jaiotako ideologia eta filosofia ultra-nazionalista honek 60ko hamarkadan hirugarren munduko sozialismoan kokatzen ziren doktrina politiko

anti-inperialistekin bat egin zuen. Josif Stalinen “herrialde bakarreko sozialismoaren” eta Mao Zedongek proposatutako “lasterbide nazionalista eta iraultzailearen” arteko bide propioa landu zuen jutxe ideiak. Jarrera ideologiko hori marxista ultra-ortodoxotzat jo daitekeen arren, jutxe ideiak historia eta tradizio korearrari gehiago zor die Karl Marx pentsalari alemaniarren tesiei baino.

Kim Il Sung izan zen ideologia honen sortzailea, eta bere seme Kim Jong Il egokitu zitzaion lana jarraitzea. Gizarte korearraren ezaugarriez primeran baliatzen jakin izan zuen Kim Il Sungen bere kasako ideologia eraikitzeko: kolonialismo txinatarrek ekarritako konfuzionismoak estatu iparkoerarra familia handi bihurtu zuen, kolonialismo japoniarrak pertsonen egunerokotasunean hierarkia inposatu zuen, eta txeondogyoak, budismoak eta kristautasunak kutsu

erlijioso esplizituagoa eman zioten ideologiari. Ezaugarri hauek gerraostean Kim Il Sung mito eta jainkora goratu zuten.

Bestalde, jutxe ideian hiru iraultzaosagai aurreikusten dira: Liderra (Kim Il Sung), Alderdia (bakarra, Koreako Langileen Alderdia) eta herri masak. Elementu hauen arteko harremana hierarkikoa ez izan arren, bada harreman organiko bat: giza-gorputz batean Kim Il Sung burmuina litzateke, Koreako Langileen Alderdia gorputza edo zainak, eta herri masak gorputz-zelulak lirateke. Slogan korear batek argi erakusten du ideia honen funtsa: “Bihotz guztiek elkarrekin, bihotz bakarrik bezala egiten dute taupaka”. Adituek lotura organiko honi korporatibismo ezkertiarra edo neosozialista deitzen diote. Ikuspegi horren arabera, tipologia honetako erregimen marxistek “klase” dialektika

katsu bat (Taiwan) norgehiagokan bizi dira. Eta aldi berean, Gerra Hotzak eta mundu globalizatu neoliberalaren arauak markatzen dute testuinguru politikoa.

Koreako penintsulak arrazoi ideologiko-engatik 60 urte daramatza zatituta, iparralde sozialista eta hegoalde kapitalistaren artean. Urtetan antagonismo hori gizarte-kontzientziaren parte izatera iritsi da, eta gaur egun gorrotoa eta tentsioa politikaren ezaugarri bihurtu dira. Fenomeno horren arrazoi estrukturalak hiru une historiko eta traumatikoetan aurkitzen dira: lehena korear historia garaikideko eperik ilunena izan zen. 1890. urtean mendebaldeko potentzien laguntzari esker, Japoniak Koreako penintsula okupatu eta 1905ean kolonia bilakatu zuen. Tokiok inposatutako erregimen inperialistak korearren eskubide zibil, ekonomiko, politiko eta kulturalak sistematikoki bortxatu zituen.

Bigarren epea Gerra Hotzarekin hasi zen: Bigarren Mundu Gerraren amaieran Washingtonek Korea tropa estatubatuar eta sobietarren artean banatzeko erabakia hartu zuen. Ondorioz, 1948an nazio korearra bi estatutan zatiturik geratu zen: alde batean Syngman Rhee jeneral ultra-eskuindarrak zuzendutako Hego Korea, eta bestean Kim Il Sung gerrillari komunistaren Ipar Korea.

Hirugarren sasoia Koreako Gerraren eskutik etorri zen: 1950. urtean, iparraldeak hegoaldea mendean hartu zuen. Ordura arte “eskala txikiko gatazkatzat”

hartua, lehenbizi Nazio Batuen eta AEBen esku-sartzeek, eta ondoren Txina eta Sobietar Batasunarenak, hiru urtez luzatu zuten XX. mendeko bigarren erdiak ezagutu duen gerrarik suntsikorrena. Gainera, potentziek gerrari bake-hitzarmen batez amaiera eman ordez, gatazka su-eten ahul batez gaur arte luzatzea erabaki zuten. Batasunaren ametsa gauzatzeko ahaleginaren porrotak buruzagi iparkorearrak munduan beste inon existitzen ez den estatu-erakuntzan isolatu zituen. Lan horretan, Kim Il Sung karismatikoak ideologia bilakatu zuen gizarte berri horretako ikur nagusi.

Krisi nuklearra

Bestalde, burujabetasun militarra da Ipar Korearen helburu nagusietakoa. Xede hori gauzatzeko Pyongyangek 90eko hamarkada hasieran ezkutuko egitasmo nuklearra abian jarri zuen. Ordura arte Ipar Korearen aliatu nagusiak zirenak, Mosku eta Beijing, Pyongyangen posizioetatik urrun zebiltzan. Sobietarrek urrutiratzea desestalinizazioarekin hasi zuten eta joera hori erabat indartu zen Gorbaxeven perestroikan. Une berean, iparkorearrak begi txarrez ikusten hasi ziren Deng Xiaopingek Txinak merkatu ekonomiari ateak irekitzea. Aliatu historikoen jarrera horiek marxismo-leninismoari traizioa egiten ziotela eta ondorioz AEBak Gerra Hotzaren garaileak zirela pentsatzera eramanez zituen buruzagi iparkorearrak.



“nazioaren” dialektikagatik aldatu zuten. Honela, mundu sistema hautemateko nazio aurreratu (edo burges) eta atzertuen (edo proletarioen) arabera irizpideak darabiltzate.

Aipatu ditugun bitarteko horien xedea trantsizioan den gizarte sozialistatik gizarte komunistara igarotzea da. Prozesu hori aurrera eramaten den bitartean, sozialismoa ahalik eta eraginkorrena izan dadin juxte ideiak *zazusong* delako ikusmoldea garatu du. Koreeraz hitz hau independentzia, burujabetasuna, autodeterminazioa eta abar luze baten sinonimoa izateaz gain, hiru aldarrikapen nagusi daramatza berekin: burujabetasun militarra, ekonomikoa eta politikoa. Ikusi ditugun ezaugarri guzti hauen batura Koreako Herri-Errepublikak Demokratikoa da: totalitarismoa, hurbil dagoen erregimen dinastikoa, anti-inperialista eta juxteista.



Ezker-eskuin: desfile militarra –burujabetza militarra da estatuaren helburu nagusietakoa–; 60. urteurrenaren ospakizunetako desfileak; eta haurrak eskolan.

Hala, lehen krisi nuklearra Ipar Korea nazioartean isolatuen zegoen momentuan piztu zen. 1994. urtean inteligentzia zerbitzu amerikarrek ezkutuko egitasmo nuklearrak ohartarazi zutenean itsu-itsuan Korean gerrari ekiteko zorian egon ziren AEBak, Jimmy Carter presindente ohiaren esku-hartzeagatik izan ez balitz. Ipar Koreako hiriburuan Kim Il Sungekin elkarriketatu zen Carter, eta egitasmo nuklearra gelditzeko konpromisoa lortu zuen. Ordainean, AEBek giza erabilpen esklusiborako zentral nuklear bi eraikitzeke teknologia agindu zioten Ipar Korea-ri. Teknologia hori ez zen inoiz Pyongyanger iritsi.

Krisialdia berpiztu egin zen 2002. urtean AEBek Ipar Korea “herrialde terroristen ardatzean” sartu zutenean. Pyongyango elite politikoak ikaratuta utzi zituzten garai hartako Afganistan eta Irakeko inbasio militarren irudiek. Horrek disuasio-tresna bakarra arma nuklearrak zirela pentsatzera eramán zituen eta nazioartearen aurrean harrotasunez egitasmo nuklearra berriz ere abian zela jakitera eman zuten. Testuinguru larri horri aurre egiteko jaio ziren Bejingek zuzendutako sei herrialdeen (AEBak, Errusia, Japonia, bi Koreak eta Txina) negoziazio mahaia. Diplomazia foro horietan Ipar Koreak behin eta berriz eskatu zituen bere subiranotasunaren aurka erasorik ez izatea eta hondoratutako ekonomia suspertzeko diru laguntzak, egitasmo nuklearra bertan behe- ra uzteagatik. Elkarriketa prozesuak ozto-

po ugariri egin behar izan zien aurre, esate- rako Pyongyangek 2006ko urrian egin zuen proba nuklearra. Hala ere, pasa den urriaren 11ko erabaki historikoa ailegatu zen: Ipar Koreak zerrenda beltzean egotea- ri utzi zion. Halaber, administrazio ameri- karrak nazioartean bultzatuko dituen poli- tika berriek badirudi distentsio fase batera eramango dutela auzi nuklearra eta korea- rra. Ipar Koreak Japonia eta AEBekin eza- rriko dituen harreman diplomatikoetan dago orain gakoa.

Nazioarteko harreman eta interesak

Nolanahi, zenbait galdera oraindik ere erantzun gabe geratu dira kri- sialdiaren amaierarekin. Zergatik ez zuen Washingtonek Korean Irak edota Afganistanen erabilita- ko estrategia bera erabili; hau da, erregimen aldaketa? Pyongyangen gaitasun militarra Irak edo Afga- nistanena baino askoz indartsuago izan arren, argi dago ahalmen hori zaharkitua dagoela eta herrialdeak bizi duen egoera ekonomiko makalarekin baldintzatua. Hori dela eta, hipotesi horrek ez du behar adina indarrik Washingtonen estrategia aldaketa ulertze- ko. Erantzunaren bila, AEBek Asia ipar- ekialdean, eta zehatzago Koreako penin- tsulan, dituzten interes geoestrategikoetan jarri behar da arreta.

2000. urtea bi Koreen arteko gailurrari esker pasa zen historiara. Topaketa haieta- tik Koreen arteko lankidetzak sustatzen zuen hitzarmen garrantzitsua jaio zen. Momentu

**Litekeena da Txinaren
eredu ekonomiko hibridoa
iparkorearren bizi baldintza
kaxkarren irtenbidea izatea**



horretan AEBek eta Asia ipar-ekialdeko gainontzeko potentziek Korea batu euren interesen kontrako zela agerian utzi zuten. Izan ere, Korea independente batek Japonia, Txina edota AEBen nahi hegemonikoei traba jarriko lieke. Japoniak eta Txinak ekonomian lehiakide paregabea topatuko lukete; estatubatuarren kasuan aldiz, Japonian eta Korean dituzten 60.000 soldaduen presentziak ez luke zentzurik izango

Totalitarismotik hurbil dagoen erregimen dinastikoa, anti-imperialista eta jutxeista. Horra zer den Koreako Herri-Errepublika Demokratikoa

eta ondorioz, Washingtonek zonaldean duen indar militar guztia galduko luke. Azken batean, AEBek Asia ipar-ekialdean beharrezkoa dute euren tropen presentzia justifikatuko duen estatu mehatxagarria, baina aldi berean pobrea izan dadila, kontrolatu ahal izateko.

Nazio korearraren patuak, iraganean bezala, atzerriko potentzien esku egoten jarraituko duela pentsatzekoa da. Ipar Koreako goi-buruzagiek arretaz segitzen dute Txinaren eredu ekonomiko misto edo hibridoa, litekeena delako eredu hori ipar-korearren bizi baldintza kaxkarren irtenbidea izatea. Hala ere, Ipar Koreak iraganean sozialismo sistema propioa asmatu zuen moduan, beharbada etorkizunean ere kapitalismoarentzako eredu propioa asmatuko dute. Nazioarteko interesen fitxak norantz mugitzen diren ikusi beharko da. ■

Irakeko Kurdistandik hamaika hots eta kolore, ARGIAko leiho birtualean.
Azaroaren 24tik 28ra **Karlos Zurutuza** eta **Borja Portuondoren** argazkiekin egunero diaporama bana www.argia.com webgunean.

